

## Literatura zertan den

KARLOS LINAZASORO/

Orain egun gutti batzuk, egunkari honetan bertan, halako galdeketa xume presazko bat egiten zen Gipuzkoako hainbat liburutegiren artean, batik bat ea zer zen gehien irakurtzen zena jakite aldera. Geure liburutegia ere, Tolosakoa, tartean zen. Emai-tzak argiak bezain tristeak ziren: lehen hamar postuetan, orokorrean, ez zen high literaturarik azaltzen. Liburutegi guztietan izen berak edo beretsuak azaltzen ziren, denak denborapasako liburuak.

Gizarte dekadente batean bizi garela entzun nuen lehengoan telebistan, eta neuk, oker ez banago, makina bat aldiz errepikatu dut ideia berbera, xumeago noski, baina ez temarik gabe. Bada, nire begietara, los diez principales esango diogun zerrenda horrek horixe adierazten du, hain justu: gizarte honen dekadentzia.

Biziarengatik borrokatu behar ez duenak, lehengaiak ziurtatuak dituenak, denetik daukanak ez daki bizia nola edo zerekin bete, eta orduan asperdurak edo hutsalkeriak jotzen du bete-betean. Zertarako trabatu burua galdera, eginkizun, bizi-jarrera zailekin, dena emana eta egina badatorkigu?

Denbora pasatzen lagunzen digute telebista, internet, komunikabide eta gainera-ko zer guztiek, benetako arazo, galdera, zikinkeriatik aldenduz, eta, aldi berean, ahuldade guztizkora bultzatuz. Zer esango dizuet nik ba; nahiago dut gizarte bat ezer irakurtzen ez duena, liburu horiek irakurtzen dituen baina. Hain argi eta hain ozen.

Eta ez da traszendentzia edo aurrejuzku txoroengatik, ez koanto! Baina, literatura, muinean, mundua ulertzeko saio bat da, ez bizia banalizatzeko tresna bat.